

**Ahalera - “t(z)ea” / “t(z)erik”**

- ❖ Orain arte ikusi ditugunez gain, badira **ahaltasuna** / **ezintasuna** adierazteko beste bide batzuk:

**Ahala: “t(z)ea” + ukan (eduki)**

Ados ez badago, <b>esatea</b> dauka.	(... <i>puede decirlo</i> )
Gustukoa ez baduzu, berriro <b>egitea</b> duzu.	(... <i>puedes hacerlo</i> )
Etorri nahi bazenuen, lehenago <b>esatea</b> zeneukan.	(... <i>podías haberlo dicho</i> )

**Ezina: “t(z)erik” + izan (egon) / ukan (eduki)**

Sistema honekin ez dago <b>okertzerik</b> .	(... <i>no se puede equivocarse</i> )
Sentitzen dut; gaur ez daukat <b>joaterik</b> .	(... <i>no puedo ir</i> )
Ederki, ez dago hobeto <b>egiterik</b> .	(... <i>no se puede hacer</i> )

- Egitura hau **ezezkoetan** ez ezik, **galdezko** eta **baldintzazko** perpausetan ere erabiltzen da:

Ba al dago hobeto <b>adierazterik</b> ?	( <i>Se puede explicar...</i> )
Beste era batera <b>egiterik</b> badago...	( <i>Si hay ... de hacerlo...</i> )

- ❖ Zenbait **aditz-lokuziorekin**:

<b>komeni izan:</b>	Ondo <b>egitea</b> komeni da.	( <i>Conviene hacer...</i> )
<b>falta izan:</b>	Hau <b>bukatzea</b> falta da.	( <i>Falta terminar...</i> )
<b>posible izan:</b>	Posible da gu ez <b>joatea</b> .	( <i>Es posible que no vayamos</i> )
<b>merezi izan:</b>	<b>Ikustea</b> merezi du.	( <i>Merece verlo</i> )
<b>hobe izan:</b>	Hobe da ez <b>esatea</b> .	( <i>Es mejor no decirlo</i> )
<b>beharrezkoa izan:</b>	Beharrezkoa da hori <b>egitea</b> .	( <i>Es necesario hacer...</i> )

- **Ezezko perpausetan, aditz-izena** perpausaren subjektua ez bada, partitiboan jar daiteke:

Ez dut **ikusterik** (ikustea) lortu.  
 Ez dut **gainditzetik** (gainditzea) espero.